

MENDATA:

BITORIANO GANDIAGA OLERKARIAREN OMENEZ

Ricardo Badiola Uriarte

Euskaltzaindiak antolaturik eta Mendatako Udalak gonbidaturik jarraian azaltzen diren batzordeak bildu dira. Busturia eskualdeko eta Gernikatik hurbil kokatzen dena dugu, hain zuzen, Mendata herria.

Alde batetik Euskaltzaindiko bi batzorde bildu dira Mendatan eta, bestalde, Udalak gomendaturik *Bitoriano Gandiaga eta Mendata* liburukia argitaratu du Mendatako Udalak.

A.- 2001-VII-13an: *Onomastika eta Literatura Ikerketa* azpibatzenaren bilkura Mendatan.

B.- 2001-IX-09: *BITORIANO GANDIAGA eta MENDATA* liburukiaren aurkezpena Mendatan: Bizkaiko Foru Aldunditik: Gotzon Lobera, Kultura eremuko euskera zuzendaria; Bilbao Bizkaia Kutxa Fundaziotik, Jose Luis Garai; Mendatetik, aipaturiko argitalpenaren koordinatzailea izan den Idoia Mallea eta, Euskaltzainditik, Juan San Martin, euskaltzain osoa eta Ricardo Badiola Uriarte.

KRONIKA

A.- Mendatako Udaletxean bildu dira (10-14,30) Onomastika batzordeko kideak: A. Iñigo Onomastika batzordeburua, M. Gorrotxategi idazkaria eta kideak: H. Knörr, J.L. Lizundia, J.M. Satrustegi, P. Salaberri eta Hector Iglesias. Ezin etorria adierazi dute: T. Peillen, J. San Martin eta A. Usabiaga.

Eguneko aztergaien artean hau erabili dute, alegia: “2002.urteko egitasmoak: ikerketa, argitalpenak...; Bizkaiko Toponimia bilketa lana; Nafarroa Behereko izendegia aztertzen hasi; Trebiñoko izendegia; EUDELezikiko Hitzarmena; Iparraldeko Toponimia aztertzea; Sopuertako Udalak igorritako gutuna; Bilboko Ospitaleak ‘Basurtu’ herritar izenaz eskaturiko irizpena; Lasarte-Oria herritar izenaz egindako eskaera; Biztanle entitateez egindako lana; Ministerio de Fomentotik bidalitako gutuna; zenbait deituez egindako galderei emandako erantzunak... deituraren hobespena...”.

Eta, bestalde, Literatura Ikerketa azpibatzerdea, Mendatako Kultur etxean (10-14) jarraiko jaun-andreok: J. Haritschelhar, J.M. Lekuona –batzordeburua–, G. Aulestia, A. Toledo, J. Kortazar, X. Altzibar, M.J. Olaziregi eta Lourdes Otaegi, batzorde idazkaria

Batzordeak erabilitako gaia hau izan da, alegia: “Datorren urterako –2002rako– lan eta bileren aurreikuspena egin da. Horretarako aurtengo pentsaturiko lanen egoera aztertu eta datorren urterako geratzen diren hiztegi-sarrerren behin-behineko banaketa aztertu da berriro. Karlos Otegik izendatuak dituen artikuluen garrantziaz hitz egin da eta batzordeburuak haiei buruz mintzatzeko beharra adierazi du.”

* * *

Oharra: Aipaturiko batzordekideak Mendatako herri agintariekin bildu dira *Bitoriano Gandiaga* izena daraman herriko liburutegiaren inaugurazioan. Berton bai Euskaltzainburu den Jean Haritschelhar eta Mendatako Alkate den Ramón Errasti jaunak mintzatu dira. Jarraian, Euskaltzaindiak, opari erara, herriko liburutegirako, Euskaltzaindiaren argitalpen-fondotik hainbat argitalpen eskaini dizkio. Jarraian herriko Alkateak bilduriko guztiak bazkaltzera gonbidatu ditu. Eta bazkariaren ondoren, zenbait argazki egin eta Udaleko bi Land Rover-etan Bitoriano Gandiagaren sortetxea bisitatzea jo dute, *Orbelaun* baserrira, hain zuzen. Aipatu baserrian Literatura batzordeburua den Juan Mari Lekuonak omenduaren izenean berba batzuk egin ditu eta, bestalde, Gorka Aulestia, Literatura batzordekideak Bitorianoren zenbait poesia irakurri. Aipatu sortetxean herriko agintariak, goian aipaturiko Euskaltzaindikoko zenbait batzordekide eta B. Gandiagaren arreba bi izan dira. Bisita amaitzean AGUR JAUNAK kantatu dute.



* * *

B.- *Bitoriano Gandiaga eta Mendata* liburukiaren aurkezpena:

Mendatako herrian, 2001.eko irailaren 9an herriko plazan eguerdiko 12etan. Plazan jendetza dago, zeren goiz horretan Mendatako herri-mugak ikuskatzeko II. Ibilaldia burutu baita: 39 kilometroko ibilaldia. Liburukia Mendatako Udalak argitaratu du, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren eta Bilbao Bizkaia Kutxako Fundazioaren diru laguntzarekin.

Liburukiaren aurkezpenean jarraiko kideak jazarri dira mahaian:

Bizkaiko Foru Diputaziotik: Gotzon Lobera, Kultura Saileko euskeraz sustatzeko zuzendaria; Bilbao Bizkaia Kutxa Fundaziotik, Jose Luis Garai; liburukiaren paratzaile erara, Idoia Mallea herri bertokoa eta Euskaltzainditik Juan San Martín, euskaltzain osoa, Arantxa Zabala, Bitoriano Gandiagari eta haren senitartekoei bertso bi eskaini dizkiena eta Ricardo Badiola Uriarte, euskaltzain urgazlea.



Hona hemen Arantxa Zabala Enbeitak jendaurrean kantaturiko bertsoa:

“Gizon haundi bat eskertzeko gaur
 sekulako aukera,
 jende ugari etorri jaku
 gogotsu gure artera.
 Bitoriano omendu eta
 Mendata ezagutzera.
 Gaur handik goitik begira eta
 esanez daukagu bera:
 Eskerrik asko danori eta
 ahoan beti euskera”

Aurkezturiko liburukia MENDATA bildumako 2. liburukia izan da, lehen *Mendata ezagutuz* deritzana izanik, 2000.urtean argitaratua.

Bitoriano Gandiaga eta Mendata liburukian koordinazioan Idoia Mallea, Aitziber Urkiza eta Goretti Zugazaga herri bertokook aritu dira. Azala Luis Alonsok diseinatu du eta barruko argazkiak Bitorianoren familiakoak, herriko zenbait kidek, FOAT, S.L. enpresak. Aipamen berezia merezi du herriko seme den David Zabala Enbeitaren laguntzak, berau izan baita ekarpenak egin eta argazki mailan saiatu izan dena. Fotokonposizioa Croman etxeak burutu du eta inprimatze zereginetan ELKAR E. Kooperatiba.

Liburukia ‘aurkezpena’ delakoaz hasten zaigu, liburukiaren nondik norakoa azalduz. Jarraian, herriko Alkatearen agurra, Ramon Urresti Lamikizek egin. Eta gero, liburukia, hiru partetan banatzen da, alegia:

1. Mendata herriko historia: herriaren eboluzio demokratikoa; Mendata auzunez auzune: Albiz, Elexalde Mendata, Marmiz, Olabe: auzuneok argazkiz horniturik azaltzen dira; Mendata Urdaibairen barruan: kosta aldea, ibar eta Padura aldea eta mendi aldea; baserria: bizibidearen ardatza: baserrien tipologiak: baserri gotiko errenazentistak, egurrezko eskeletodunak, XIX. Mendekoak, *Orbelaun* baserria, alegia, B. Gandiagaren sortetxea; Mendata beti-betiko herri nekazaria: garijoteak, arimolliak, areak, goldeak, kodainak, aitzur desberdinak. Mahastiak, pinadiak, hariztiak, sagardiak, gaztanadiak. Ahozko ondarea. Mendatako herri kantak: San Migel... Folklore eta jaiak. *Bitoriano Gandiaga* liburutegia...; Bitoriano Gandiaga, mendatar olerkaria: Haren bizitzarekiko zenbait zehaztasun: familia, gurasoak... Arantzazuko santutegian, Gandiaga elizgizona... Haren obra-bilduma eta irunskinak.

2. Bitoriano Gandiaga eta haregaz izandako hartu emonak. Bigarren zati honetan partaideak hurrengook izan dira, alegia: J. M. Lekuona, euskaltzain oso eta Literatura batzordeburua; J-L.Davant, euskaltzain osoa; J. M. Satrustegi, euskaltzain osoa; J. San Martin, euskaltzain osoa; J. A. Arana Martija, euskaltzain osoa; Xabier Amuriza, euskaltzain urgazlea; J. L. Goikoetxea, euskaltzain urgazlea; L. Baraiazarra, euskaltzain urgazlea; R. Badiola Uriarte, euskaltzain urgazlea; Iñaki Sarriugarte, B. Gandiagari buruzko tesia burutzen dabilen lizentziatua eta Gontzal Mendibil, B. Gandiaga olerkariaren hainbat testuren kantaria eta haren omenez zenbait ikuskizun burutu dituen. Aipaturiko txostengileok B. Gandiagaren obraren azterketa eta balorazioa egin dute, haren obraren eragina euskal poesia eta literaturan eta partaideek harekin izandako harremak azaldu eta deskribaturik.

3. Bitoriano Gandiaga eta Mendata irudietan. Parte honetan herriko ikuspegi behinenak azaltzen dira: baserri desberdin, *Orbelaun* B. Gandiagaren sortetxea eta haren familia: guraso, anai-arreben txikitako argazkiak, Bitorianoaren gaztaroa, Arantzazuko ikasle eta fraide garaiak. Herriko zenbait monumentu artistiko. Mendatako jaietan, herri kirolak direla eta egindako argazkien bilduma. B. Gandiaga beste zenbait euskaltzainekin: L. Villasante, J. M. Lekuona, J.L. Lizundia..., eta azkenik Euskaltzaindiko Onomastika eta Literatura Ikerketa azpibatzaileak Mendatan –goian aipatzen den datan– egindako bilkurako argazkiak.

Amaitzeko, liburukiaren argitalpenaren epilogoak honelaxe dio, hots: “Liburu hau 2001.eko irailaren 9an, Mendatako II. Ibilaldi neurtuko egunean kaleratua duzu”.